

# EUSKADIKO ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA

## HITZAURREA

Gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialean, hots, pertsona eta familia askok etxebizitza duina eta euren beharretara egokitua izateko zailtasun handiak dituzten egoeran, etxebizitzaren alorrean inplikaturik gauden agente publiko, sozial eta pribatuok adierazten dugu borondate irmoa daukagula elkarrekin jarduteko arazo hori konpontzeko, guri dagozkigun eskumenen eremuan; horretarako, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial hau sinatzen dugu.

Itunaren funtsezko helburuak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila buru den prozesu parte-hartzailea garatuz diseinatu dira. Itunaren azken helburua etorkizunarekiko konfiantza izaten lagunduko duen eta datozen 15 urteetarako adostutako akordio ugariaren oinarriaren gainean etxebizitzari buruzko politika bultzatuko duen eta hura aplikatzen lagunduko duen esparrua sortzea da.

Itun hau sinatu dugunon iritziz, nahitaezkoa da ahaleginak eta borondateak elkartzea, akordio zabalak lortzeko; horretarako, proposamen jakin batzuk egin dira, iritzia eman dira eta irizpideak adostu dira. Horren ondorioz, filosofia askoren nahasketa den, baina gure gizartearen benetako arazoetara oso egokituta dagoen agertoki berri bat lortu da.

Etxebizitzaren alorrean gauzatzeke dagoen zereginari ekiteko beharrezkoa den ahalegin sozial eta ekonomiko handi horri erantzuteko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, gure gizartearen eta etxebizitzaren azpisektorearen benetako arazoak gune nagusian kokatzea.

Merkatu libreko etxebizitzaren egungo egoerak –etxebizitza orain arte epe laburreko eta/edo ertaineko inbertsioko ondasuna zen– higiezin merkatuan jarduteko jarraibideak aldatu ditu eta eraikuntzaren sektore osoa geldialdi kezagarri batera eraman du. Baldintza horietan, etxebizitza duina eta egokia izateko premia dutela egiaztatzen duten pertsonen etxebizitza izateko eskubidea izan dezaten Administrazioak emango duen erantzuna epe ertainean lortu

behar den helburua izango da, betiere egungo eskaera handia eta etxebizitza babestua eraikitzeke urte bakoitzean dagoen ahalmen erreala kontuan hartuta.

Bestalde, egiaztatu dugu etxebizitzak eraiki ahal izateko lurzorua lortzeko zailtasun handia dagoela. Kontuan izanda eraikitzeke lurzorua ondasun mugatua eta urria dela Euskadin, honako paradoxa hau betetzen da: eskuragarri dagoen lurzorua ez dago merkatuan eraikuntzaren euskarri gisa gauzatzeko behar adinako urbanizaziorik edo plangintzarik ez duelako. Neurri batean hori gertatzen da etxebizitza librearen eraikuntza asko jaitsi delako; izan ere, eraikuntza mota horrek pairatu ditu urbanizazio-karga gehienak eremu mistoetan.

Egoera horrek krisian jarri du sistema, eta agerian geratu da indarrean dauden arau- eta prozedura-arloko alderdiak berrikusi egin behar direla eta formula berritzaile berriak, lurzorua merkatuan jartzea ahalbidetuko dutenak, ikertu behar direla, nahiz eta zirkunstantzia ekonomikoak hain kontrakoak izan.

Hazkunde demografikoa txikia denez, eta dagoen biztanle kopururako etxebizitza-parkea handia denez, urbanizatzeko eta eraikitzeke lurzoru berrien sailkapena oso urrun dago esku-hartze urbanizatzaile orotan nagusitu behar den iraunkortasunaren kontzeptutik. Hiri-espazio degradatuei edo zaharkituei balioa ematea hiri-sarea eraberritzeko, hondatutako eraikinak ordeztzeko edo etxebizitzak birgaitzeko esku-hartze garrantzitsuak eginez, ezinbesteko helburu estrategikoa da, eta horri esker gure hirien hazkundera bateratuagoa eta orekatuagoa izango da.

Gure erkidegoaren erakunde-, administrazio- eta eskumen-arloko banaketak antolatzeko konplexua den erantzunkidetasun eta interes multzo bat dakar berekin, eta erakunde guztiek parte har dezaten eskatzen du, bakoitza berari dagokion eskumenean, agertzen zaizkigun erronka guztiei aurre egin ahal izateko.

Egungo legeriak, konplexua eta zurruna denez, eragozpenak jartzen ditu udalerrri bakoitzari, bere berezitasunak kontuan hartuta, tratamendu desberdina eman ahal izateko, eta argi eta garbi ikusten da hirigintza-, zerga- eta arau-arloko neurriak –kudeaketa azkarragoa eta lurraldeko premiekin bat datorren kudeaketa gauzatea ahalbidetuko dutenak– antolatzeko premia dagoela.

## PROGRAMA PRINTZPIOAK

Honako printzipio hauek hartu dira abiapuntutzat:

1. Herrialde honetan etxebizitza duina eta egokia izateko eskubideari erantzun ahal izateko beharrezkoak diren Etxebizitza Babestuak eraikitzeke behar den lurzorua merkatuan jar dadin lortzea.
2. Etxebizitza babestuen parkea handitzea; horretarako, alokairura bideratutako etxebizitza areagotuko da arian-arian egoera ahulenean dauden pertsoneri erantzun behar dion figura gisa.
3. Hazkunde iraunkorragoa ematea; horretarako, gure auzo, hiri eta udalerrietako hiri-espazioak berritu eta eraberrituko dira hazkunde hedakorrerako eredu bakarraren aurka.
4. Eraikitako parkea birgaitzea; horretarako, eraikinen balio-bizitzaren luzapenean, bizigarritasun-baldintzetan, irisgarritasunean eta energia-eraginkortasunaren hobekuntzan esku hartuko da.
5. Sustapena/eraikuntza suspertzea eta gremioak mobilizatzea, sektoreari konfiantza itzuliz.
6. Administrazioen arteko erakunde-erantzukidetasuna lortzea, elkar errespetatuz, lankidetzat solidarioa lortzeko; horretarako, bikoiztasunak desagerraraziko dira eta ahaleginak batuko dira etxebizitzaren premiak asebetetzeko adostutako estrategia oinarri gisa hartuta.
7. Iraunkortasunaren printzipioa (ekonomikoa, ekologikoa eta soziala) gogoan edukitzea hartutako konpromisoetan.
8. Etxebizitza planifikatzea diskriminazio oro errotik kenduz; horretarako kohesio sozialaren printzipioa aplikatuko da eta etxebizitzaren lurralde-banaketa orekatua, hots, premiekin bat datorrena egingo da.

## ERRONKAK

Lau erronkari erantzun behar zaio hamabost urteko mugan.

### 1- BIZITEGI MERKATUAN LURZORUA IZATEKO AUKERA HANDITZEA

Etxebizitza librearen eraikuntzak izandako geldialdiaren hurreneko ondorioa bizitegi-erabilerako sektore mistoen garapena (hor etxebizitza libreak eta babestuak sartzen dira) gelditzea da. Gaur egungo ereduari, etxebizitza librearen sustapenak hartzen du bere gain urbanizazio-kostu gehiena, urbanizazio-kargak etxebizitza babestuaren gainean duten eraginagatik. Nahitaezkoa da etxebizitza babestuari egotz dakioken urbanizazio-karga berrikustea lurzorua eraikitzeke moduan jar dadin lagundu nahi badugu, eta horrek, ondorioz, ekarriko luke Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea lehenbailehen aldatzea.

Halaber, gure ustez beharrezkoa da legezko baliabideak eta mekanismoak jartzea, Tokiko Administrazioei malgutasun handiagoa emango dietenak administrazio horiek beren bitartekoak unean-unean duten premia ekonomikora eta sozialera egokitzeke.

### 2- ETXEBIZITZA BABESTUAREN PARKEA HANDITZEA, ALOKAIURUKO ETXEBIZITZAREN PROPORZIOA HANDITUZ

Alokairuko etxebizitza sustatzeko, Administrazioak arian-arian gero eta bitarteko gehiago ematea bazter utzi gabe, eta azken helburua ahalegin publikoa modalitate horretan amaitu dadin izanik, gaur egun, alokairuko etxebizitzak eta jabetzakoak bizikide izan beharko dute.

Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea bermatzeko, funtsezkoa da alokairuko etxebizitzen parke egonkorra izatea. Itunaren denbora-mugari dagokionez, Administrazio eskudunen helburua honako hau da: itundutako denbora-mugaren amaieran, sustatuko diren etxebizitza babestuen gutxienez % 50 alokairu-erregimeneko edozein modalitatetakoak izatea.

Helburua Administrazioak eredu horretara baliabide ekonomikoen proportzio handiagoa bideratu ahal izatea izanik, hainbat formula bilatu behar ditugu salmentako sustapenek aurrekontu-baliabideak gastatu ez ditzaten. Horretaz gain, nahitaezkoa izango da aparteko baliabide ekonomikoak lortzea alokairura bideratutako etxebizitzari dagokionez konprometitutako kopurua eraiki ahal izateko, merkatuaren egoera berezia tarteko.

### **3- ERAIKINEN ERABERRITZEA AREAGOTZEA, ETA ESTRATEGIA PROGRAMAK DEFINITZEA HIRI ESPAZIOAK BERRITZEKO ETA ERABERRITZEKO**

Egun dauden baliabideak erabiltzeak, etorkizuneko belaunaldietakoak arriskuan jarri gabe, zalantzan jartzen du orain arte garatu den hazkunde hedakorreko politika. Ereduek berri bat diseinatu behar da, eta eredu horretako jardunak, solairu berri bat eraikitzea bazter utzi gabe, eraikitako parkea eta hiri-espazioak berreskuratzeko izango dira; horretarako, ahalegin handia egin behar da arlo horretan, bai kudeaketa-mailan, bai ekonomia-mailan.

Ados gaude Administrazioak egiten duen ahaleginaren zati handi bat dagoen hiria berreskuratzeko izan behar duelako ideiarekin. Gaizki aprobetxatutako espazioak berreskuratzea, eta hiri-sarea eraberritzeko eragiketak –zerbitzuak emanez, etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetuz eta eraikinen bizitza luzatuz– kohesio soziala sustatzen duten eta hirietan sustapen ekonomikoa bultzatzen duten esku-hartzeak dira.

Politika berri horrek erakundeen arteko lankidetzak eskatzen du kudeaketa-zereginetan orokorrean, eta bereziki birkokatze zehatzei dagokienez, hiria biziberritzeko edo eraikinak oso-osorik eraberritzeko esku-hartzeak ahalbidetzeko.

Gure ustez laguntza handikoa da Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak (SUR) daudela aprobetxatzea, hainbat urtetan lortutako esperientzia eta jakintza biltzeko, sozietate horiek kudeaketarako duten gaitasuna erabiliz.

#### **4- ERAKUNDE ERANTZUKIDETASUNA HOBETZEA ETA LANKIDETZA PUBLIKO/PRIBATUA SUSTATZEA**

Berritzeko plan estrategikoak diseinatu ahal izateko, dagoen eraikin-parkearen inbentarioa egin behar da; horretarako, auzoen eta eraikinen kalteberatasun-indizeak, Udalekin eta Kontzejuekin lankidetzan jardunda esku hartzeko lehentasunak definitzeko balio izango dutenak, ezarriko dira.

Etxebizitzak birgaitzeko laguntza ekonomikoen kudeaketa, pixkanaka-pixkanaka, Udalen eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen esku uztea formula egokia da, gure ustez, izapideak azkartzeko eta ahalegin bikoitzik ez egiteko.

Foruekiko lankidetzan sakondu behar da zerga-arloko neurriak, herritarrek etxebizitza edukitzeko erregimen bata edo bestea, alokairua edo erosketa, aukeratzerakoan zerga-tratamenduak duen eragina gutxitzeko asmotan, eta, onartutako azken aldaketa normatiboen ildo jarraituz.

Azkenik, nahitaezkoa deritzogu kudeaketa publikoaren gobernantza hobetzea, parte hartzeko tresna berriak eta komunikatzeko bide eraginkorragoak erabiliz; horregatik, gure ustez ezinbestekoa da administrazio elektronikoko tresnak jartzea, babes publikoko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa (Etxebide) hobetzeko, besteak beste, baita etxebizitzan eragina duten sektore-arloko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko lankidetzak hobetzeko ere.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak nahitaezko formula da arriskuak eta aukerak partekatzeko finantza-krisiaren eta aurrekontu-mugatzearen testuinguru batean; izan ere, testuinguru horretan eraginkortasunak eta efizientziak aurreko aldietan baino askoz ere garrantzi handiagoa hartzen dute.

## KONPROMISOAK

Ordezkatutako kolektibo bakoitzaren berezitasunari eta bakoitzaren nortasun politiko eta soziala errespetatuz, eta dagokien eskumen-eremuaren eta jardueraren arabera, adierazten dugu Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu nahi dugula, etxebizitza babestua gaur egun dituen baldintzei, premia sozialei eta egoera ekonomiari buruz egindako diagnostikoan oinarritutako Ituna, alegia.

Itun honetan, dokumentu honen sinadurarekin silatzen dena, partehartze prozesuan jasotako hausnarketak aintzat hartuz, 2025. urterako ondorengo egoera proposatzen du, Administrazio Publikoek kontuan izan dezaten:

- **90.000 familiaren bizitegi-premiak asebetetzea.**
- **Behar adinako alokairu-parke publikoa eratzea, eta Itunaren indarraldiaren amaieran lortzea sustatutako eraikin publikoen % 50 alokairu-erregimenekoak izatea.**
- **Hiri-espazioak eraberritzea eta eraikitako parkearen baldintzak hobetzea 250.000 birgaitze-jardun eginez.**

Itun honen egitura honako hau da: 4 erronka, 15 jardun-ildo eta dokumentu honi erantsitako 87 ekintza; horiek guztiak Itunaren edukiak eskatzen duen moduan bildu eta dimentsionatuko dira Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak egingo duen **2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiri Berrikuntzako Planean**. Horretaz gain, funtsezko alderdiak eta estrategiak laguntza-oinarriak izango dira eta etorkizunean onartuko den **Etxebizitzari buruzko Legea** pasako dira.

Dokumentu hau sinatu dugunok konpromisoa hartu dugu, gure eskumenei, jarduerak eta etxebizitzari buruzko politikarekin dugun harremanak ahalbidetzen diguten neurrian, ahaleginak batzeko eta modu koordinatuan laguntzeko etxebizitzari buruzko politikak garatzen dituen ekintzetan –publikoak nahiz pribatuak–, itundutako baldintzekin bat etorriz, Itun hau indarrean dagoen bitartean.

Era berean, konpromisoa hartzen dugu eratzen diren jarraipen-organoei laguntzeko eta horietan parte hartzeko, Ituna betetzen ote den etengabe ebaluatzearen hura indarrean dagoen bitartean. Organo hauen erregulazioa, gehienez, dokumentu hau sinatzen denetik 4 hilabetera egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko Ekainaren 16a

**SINADURAK**

## 2010-2025eko ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALAREN ERRONKAK, JARDUN ILDOAK ETA EKINTZAK

Etxebizitza duina eta egokia izateko premia duten herritarrek etxebizitza hori izan dezaten ahalbidetzea da proposatutako erronken eta ekintzen erreferente nagusia. Denborari, ezarpenari, eragileei eta konpromisoei buruzko erronkak, jardun-ildoak eta ekintzak Itunaren partaideek adostu dituzte, eta ekintza publikoaren eraginkortasuna, efizientzia eta ekitatea oinarri hartuta ezarri dira; horretaz gain, egungo errealtate ekonomikoaren, sozialaren eta teknikoaren ikuspegitik antolatu dira, baita epe ertainean izango duten proiektioaren ikuspegitik ere.

Euskal administrazioak, itunaren denboraldiaren amaieran, lortu behar du bere jarduera nagusia bi oinarrizko ardatzetan biltzea: alokairuko etxebizitzaren sustapenean eta hiria eraberritzeko eta eraikinak birgaitzeko esku-hartzeetan.

Eraginkortasunari dagokionez, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala lau erronkatan oinarritzen da:

- 1. erronka: Bizitegi-merkatuan lurzorua eskuratzeko aukerak handitzea
- 2. erronka: Etxebizitza babestuaren parkea handitzea, alokairuko etxebizitzaren proportzioa areagotuz
- 3. erronka: Eraikinen birgaikuntza areagotzea eta hiri-espazioak berritzeko eta eraberritzeko programa estrategikoak definitzea
- 4. erronka: Erakunde-arloko erantzukidetasuna hobetzea eta lankidetzaren publiko/pribatua sustatzea



## 1. ERRONKA:

### BIZITEGI MERKATUAN LURZORUA ESKURATZEKO AUKERAK HANDITZEA

Helburua zera da, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke egokia den lurzorua lortzea eta egun dagoen hiri-lurzorua aprobetxatzea, politika iraunkorraren eta lurraldeari dagokionez egun dagoen etxebizitza-eskaerarekiko orekatua den politikaren printzipiopean.

#### 1. ildo. Euskal Administrazioak babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzoruaren mobilizazioa bultzatuko du

- **1. ekintza.** Hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien inbentarioa egitea. Sektoreko eragileek inbentarioa elikatzen lagunduko dute; horretarako, jarraipena egiteko eta eguneratzeko mekanismoak ezarriko dira.
- **2. ekintza.** Lurzoru-inbentarioari buruzko informazioa ematea informazioa eskatzen duten agente publiko eta pribatu guztiei, betiere babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko bada.
- **3. ekintza.** Lurzoruaren inguruan egon daitezkeen premiak kokatzea, Etxebideren eskaera-datuekin eta etxebizitzari buruz egin diren azterlanekin eta tokiko planekin erkatzeko.
- **4. ekintza.** Finantziazio-mekanismoak aztertzea eta erraztea etxebizitza babestuetarako lurzorua erosteko eta urbanizatzeko, eta etxebizitza horiei buruz gizaritari ematen zaion informazioa hobetzea.
- **5. ekintza.** Lurzorua eskuratzeko eta urbanizatzeko ematen diren laguntza publikoak berrikustea.
- **6. ekintza.** Sallaren eta Udalen artean hitzarmenak sina daitezen sustatzea lurzorua lagatzeko edo urbanizatzearen truke aprobetxatzeko.
- **7. ekintza.** Formulak abian jartzea lurzoruaren errentagarritasuna handiagoa izan dadin, hala nola zerbitzu komunei dagokien azalera eraikigarri gisa ez zenbatzetik eratorritako eraikigarritasuna handitzea, edo eraikigarritasun-koefizientea izatea eraikuntza-dentsitatea mugatzen duena, betiere bizitegi-erabilera kolektiboko etxebizitzaren gehieneko kopurua mugatu gabe. Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikiko direla aurreikusita dauden eta gaur egun blokeatuta dauden lurzoruak urbanizatu ahal izateko, nahitaezkoa da hirigintza-eragiketarako errentagarri bihurtzea ahalbidetzen duten mekanismoak aurkitzea, Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako protagonismo handiagoa emanez urbanizazio-kostuetan, hala nola: lurzoru urbanizatua izateagatik eragina izan dezaketen prezioak aldatzea; *lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen* erreserba-estandarrak aldatzea; hirigintza-

gainbalioa erreskatatzeko ehunekoa, 11/2008 Legean ezarrita dagoena, berrikustea; eraikigarritasuna areagotzeko aukera (esate baterako, azalera komunak azalera eraiki gisa zenbatu gabe); eraikigarritasuna eraikuntza-dentsitatea mugatzen duen parametro gisa ezartzea, eraiki beharreko etxebizitza kopurua mugatu gabe (eskatzen den Babes Ofizialeko Etxebizitza kopurua txikia da, eta nekez agortuko da eraikigarritasuna etxebizitzen gehieneko kopurua kontuan hartzen badugu).

- **8. ekintza.** Lurzoruaren balioa urbanizazio-kargen balioetatik banakatzea, bakoitzari oinarrizko moduluaren portzentajezko balioa emanez.
- **9. ekintza.** Lurzorua eskuratzeko administrazio-izapidetzea azkartzea eta erraztea, indarreko legerian ezarritako hirigintza-prozesua sinplifikatzea barne
- **10. ekintza.** Agente urbanizatzailearen figura garatzea eta sustatzea.
- **11. ekintza.** Zuzkidura-alojamenduetara bideratutako lurzoru mugarrizkoen azalera handitzeko aukera aztertzea planeamendua aldatzeko beharra izan gabe.
- **12. ekintza.** Behar diren arau-aldaketak egitea eta irizpide objektiboak lantzea, jardun bakoitzera egokitutako ehunekoak ezartzerakoan (araudian finkatuko den tartearen barruan) Udalei erabakitzeko ahalmena eta berme juridikoa emango dietenak, bai urbanizazio-kargetatik kanpo dagoen hirigintza-aprobetxamenduari dagokionez, bai Babes Publikoko Etxebizitzarako nahitaezko erreserbei dagokienez.

## 2. ERRONKA

### ETXEBIZITZA BABESTUAREN PARKEA HANDITZEA, ALOKAI RUKO ETXEBIZITZAREN PROPORZIOA AREAGOTUZ.

Etxebizitza lortzeko aukerak hobetzea; horretarako, etxebizitza babestu mota guztiak sustatu beharko dira eta alokairu-erregimena sustatu beharko da lehentasunez, alokairurako bideratutako parkea arian-arian areagotuz, baldintza ekonomikoek ahalbidetzen duten neurrian. Alokairua sustatzeko politikak erakargarria izan behar du mentalitate-aldaketaren eragile gisa jarduteko, eskaintza eta eskaera egokitzeko nahitaezkoa baita. Baina, eskaeraren joera oraindik ere erosketaren aldekoa denez eta baldintza ekonomikoak mugatuak direnez, bi erregimenek, hots, erosketarenak eta alokairuarenak, osagarriak izan behar dute epe laburrean eta ertainean.

#### 2. ildo. 90.000 familiak 15 urtean etxebizitza eskuratzeko sustatzea.

- **13. ekintza.** Baterako ahalegina egitea Etxebideren eskatzaileen zerranda deparatzeko, une bakoitzean dagoen eskaera/premia hobeto ezagutzeko.

- **14. ekintza.** Etxebizitzaren inguruan egon litezkeen premiak kokatzea, behar adinako eskaera izan arren, historikoki etxebizitza babestua sustatu ez den udalerriei lagunduz. Etxebizitzaren Euskal Behatokia eta Etxebizitzaren Udal Zerbitzuak lankidetzan arituko dira eta premia errealari buruzko informazioa konpartituko dute.
- **15. ekintza.** Kontzertazio-formula azkarrak ezartzea, etxebizitza babestuen sustapena handitzeko, batez ere eskaera handieneko udalerrietan.
- **16. ekintza.** Komunikazio-kanpainak egitea, sustapenerako laguntzei buruzko informazioa emateko.
- **17. ekintza.** Babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak eraikuntzaren benetako kostura egokitzea.
- **18. ekintza.** Kupoen egungo arautegia berrikustea aurretiazko baremazioa duen zozketa-eredu bat lortzeko. Eredu horretan, etxebizitza izateko premia objektiboaren irizpideek izango dute lehentasuna talde sozial jakin bateko partaidea izatearen gainetik, nahiz eta gizarte-oreka bati eutsiko zaion, bazter utzi gabe hainbat gizarte-kupo ezartzeko salbuespena bereziki sentikorrek diren problematiken aurrean.

**3. ildo. 40.000 familiarentzako alokairu-erregimenerako sarbidea sustatzea 15 urtean, 2013. urtean alokairu-erregimenean sustatuko diren etxebizitza publikoak sustatutako etxebizitza berri guztien % 40 izan daitezen, eta 2025ean % 50.**

- **19. ekintza.** Zuzkidura-alojamenduen eta alokairuko etxebizitzaren sustapena bultzatzea, eta etxebizitzaren premia betetzera bideratutako figura berriak sortzea.
- **20. ekintza.** Alokairu babestuaren sustapenaren finantzazio publikoa eta alokairua helburu duten proiektuak garatzen lagunduko duten kontratu-figura berriak aztertzea.
- **21. ekintza.** Lankidetzak publiko/pribatua sustatzea, alokairuko etxebizitza babestuak eraiki eta ustiatzeko.
- **22. ekintza.** Kooperatiba-sektoreak alokairuko etxebizitzaren sustapenean parte har dezan mekanismoak ezartzea.
- **23. ekintza.** Hutsik dagoen etxebizitza, berria nahiz erabilia, mobilizatzea, bai egun dauden programen bitartez (Bizigune), bai une bakoitzeko premietara eta zirkunstantzietara egokitzen diren tresna berriak sortuz.
- **24. ekintza.** Etxebizitza birgaituak alokairu babestuaren merkatuan jartzera bideratutako programak ezartzea.

- **25. ekintza.** Adinekoen etxebizitzak lagatzeko eta haien premietara egokitutako zuzkidura-etxebizitzaren truke alokairu sozialaren merkatuan sartzeko programa onartzea.
- **26. ekintza.** Alokairuko etxebizitzak sustatzeko baliabide ekonomikoak sortzera bideratutako neurriak abian jartzea, esate baterako, azalera-eskubidearen erregimen pean eraikitako etxebizitzaren lurzorua salmenta. Lurzorua salmenta gauzatzean beharrezko neurriak hartuko dira etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea edo eurretan duen lehentasuna jaitsi ez dadin. Aldi berean, etxebizitzak behin -betirako babes publikoko etxebizitza gisa kalifikatu beharko dira, eta horrek lagunduko du, alde batetik, etxebizitzaren parke publikoari egonkortasuna ematen parke horretatik ez direlako aterako aldi baterako kalifikazioa duten etxebizitzak, eta bestetik, parkea handitu egingo delako, kalifikazioa galdu dutelako sistematik kanpo geratu diren etxebizitzak errekuiperatuko direlako parke horretarako.
- **27. ekintza.** Aldian-aldian berrikustea maizterrak alokairuko parke publikoan egoteko baldintzak betetzen direla.
- **28. ekintza.** Bitartekotza publikoko aukera aztertzea alokairuko kontratuetan, alokairuko etxebizitza-poltsa sortuz, bermeak eta kudeaketa-laguntzak ezarri jabearentzat (arisku anitzetarako aseguruak, aseguruak ez ordaintzeen kasuan, kontratua izapidetzea, birgaitzeko laguntzak izapidetzea, doako bitartekotza) eta maizterarentzat (polizen doako izapidetzea, bitartekotza, kontratu-bermea, merkatukoak baino prezio txikiagoak).
- **29. ekintza.** Alokairurako abal publikoaren sistema bat aztertzea, errentariari, nahitaezko fidantzaz gain, bestelako berme gehigarriak eska ez dakion, berme eta segurtasun juridikoa ematearren.

#### **4. ildo. 50.000 familiak 15 urtean jabetzako babes ofizialeko etxebizitza lortzeko aukera izan dezaten sustatzea.**

- **30. ekintza.** Esparru eraginkor bat ezartzea, familia esleipendunek finantziazioa lortzea erraztuko duena; horretarako, berme handiagoa emateko balio izango duten neurriak sustatuko dira.
- **31. ekintza.** Diru-sarrera gutxien dituzten herritarren eskaerei erantzuten dieten gizarte-erakundeek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatutako kooperatibek etxebizitza babestuaren sustapenean parte har dezaten laguntzea; horretarako, kooperatibek autosustapenerako bitartekoak eta kaudimen tekniko profesionala dutela bermatuko duten neurriak ezarriko dira.
- **32. ekintza.** Erosteko aukera emango duen alokairu-programa bat abiaraztea. Arau bidez erregulatuko dira erosteko aukera gauzatzeko epea, eskualdaketaren prezioa eta etxebizitza horien kalifikazio iraunkorraren tipologia.
- **33. ekintza.** Etxebizitza babestuaren prezioen eredua aldatzea, Berme eta Konpentsazio Funtsean oinarrituz. Eredu berriak ahalbidetuko du etxebizitza babestuaren salmentan prezio desberdinak aplikatzea erosleen errenta-mailen arabera, familien ahalegin ekonomikoa erlazionaturik egoteko familia horien diru-sarrerekin, baita sustapenak autosufizienteak eta orekatuak izateko ere. Finantzazioa eta hipoteka bermea babestutako etxebizitzaren balioztatzearen arabera finkatuko da. Funtzak diru-sarrera finkoa bermatzen dio sustatzaileari kontratuaren xede diren etxebizitzak saltzeagatik.
- **34. ekintza.** Sistematikoki berrikustea etxebizitza babestuaren eginkizun soziala betetzen dela.

#### **5. ildo. Bizitza Ibilbide programa bat abian jartzea**

- **35. ekintza.** Gaur egungo truke-mekanismoa berrikustea, etxebizitzaz aldatu beharra daukaten familiek eskura izan dezaten euren beharretara eta gastu-ahalmenera egokitutako etxebizitza-aldaketa egiteko tresna eraginkorra.
- **36. ekintza.** Babes ofizialeko etxebizitzen jabeak salbuetsita uztea etxebizitzarik ez izatearen baldintza betetzetik, etxebizitza tasatua eskuratzeko aukera izan dezaten eta, beti ere, BOE Administrazioaren esku uzten badute. Ohiko esleipen-prozedura jarraituta, jabetzan etxebizitzarik ez duten eskatzaileek okupatu gabe utzi dituzten etxebizitza tasatuen kasuan baino ez da egongo zabalik honako aukera hau

## 6. ildo. Egoitzarekin lotutako gizarte-bazterkeria eragozte

- **37. ekintza.** Gizarte-politiketara bideratutako etxebizitzaren inbentario bat sortzea, etxebizitza horien esleipena azkartzeko, premia eta larrialdi bereziko kasuetan. Inbentarioa erakunde publiko guztiek elikatu beharko dute, eta erakunde horiek eskuragarri dituzten etxebizitzetara eta aldaketei buruzko informazioa emango dute, inbentarioa eguneratuta edukitzeko.
- **38. ekintza.** Harrera-etxebizitzaren eta gizarteratzeko etxebizitzaren sarea, behar adinakoa, sortzen laguntzea aterperik gabekoentzat, eta, bereziki, sozialki larrienak diren kasuentzat (genero-indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak, utzarapenak, dibortziatutako pertsonak eta abar), baita hirugarren sektoreko kolektiboek bultzatutako programak sortzen laguntzea ere.

## 3. ERRONKA

### ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA AREAGOTZEA ETA HIRI ESPAZIOAK BERRITZEKO ETA ERABERRITZEKO PROGRAMA ESTRATEGIKOAK DEFINITZEA.

Euskadik 900.000 etxebizitzatik gorako eraikitako parkea du, eta horietatik ia % 70 1980. urtea baino lehenagokoak dira. Onartzen badugu energia-kontsumoaren % 60 bizitegi-eraikuntza erabiltzeko aldiarekin lotuta dagoela, ondorioztatutako dugu egun dauden eraikinen energia-efizientziaren hobekuntzan esku hartzea ezinbestekoa dela. Hazkunde orekatuak eta iraunkorrak ekartzen du hirien, herrien eta landa-guneen barnera begiratzea, auzo eta hiri-espazio degradatuak eraberritzeko eta berritzeko eragiketen aldeko apustua eginez, eraikuntza berriko etxebizitzaren premia murrizteko, dauden baliabideekiko errespetua bermatzeko, eraikinen energia-efizientzia hobetzeko, lehengaien kontsumoa murrizteko, egun dagoen etxebizitza-parkeari balioa emateko eta kohesio soziala eta sustapen ekonomikoa bultzatzeko hirietan eta landa-guneetan.

50 urtetik gorako antzintasuna duten eraikuntzei dagokien Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT), nahitaezkoa dena, ezinbesteko eta funtsezko tresna da eta berbideratu egin behar da; horretarako, tresna horren obligaziozko irudia aldatu behar da eraikinen bizigarritasun- eta konfort-baldintzak zein diren jakiten lagunduko duen tresna bihurtuaz, birgaikuntzako plan estrategiko bat diseinatzeko oinarri izango delarik.

## 7. ildo. 250.000 etxebizitza birgaitu eta hobetzea 15 urtean.

- **39. ekintza.** Etxebizitzen eta eraikinen egungo parkearen egoeraren inbentarioa egitea, Udalekin, Kontzejuekin eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateekin batera, kalteberatasun-indizeak ezarriz, eraikinen adina eta baldintzak, interes kulturala, irisgarritasunaren, zuzkiduren eta segurtasun-pertzepzioaren eta herritarren ezaugarri soziologikoen ikuspegitik auzoen egoera kontuan hartuta. Inbentario horrek esku hartzeko lehentasunak definitzeko balio izango du.
- **40. ekintza.** Etxebizitza eta gizarte gaietako sailekin eta inplikaturik dauden beste agenteekin koordinaturiko programak ezartzea, arazo edo gabezia handiak (arkitekturaren, ekipamenduaren eta irisgarritasunaren aldetik) dituzten hiri-espazioak eraberritzeko; horretarako, esku hartzeko modu berriak aztertuko dira, birkokatze eta urbanizatzeko kostuek ez eragozteko hiri-birgaikuntzako eragiketak gauzatzea, eta horrek guztiak lankidetzara pribatua erraztuko luke, honako hauek ahalbidetuko bailituzke, esaterako: eraikigarritasuna handitzea egun dauden orubeetan edo eraikinen ordeztzeko esku-hartzeetan, horrek zuzkidurak gehitzea ekarri gabe.
- **41. ekintza.** 3.000 biztanle azpitiko udalerrien berezko eraikuntzen birgaikuntzarako berariazko programak ezartzea.
- **41. ekintza.** Etxebizitzak birgaitzea sustatzea eta partikularrentzako eta auzokoen erkidegoentzako laguntzak areagotzea, udalerritik txikiak eraikinen berezitasunak kontuan hartuta programak diseinatzerakoan eta arauak egiterakoan.
- **43. ekintza.** Etxebizitzen irisgarritasuna lortzen lagunduko duten ekintzak eta egungo eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeak sustatzea; horretarako, dagozkion ziurtagiriak ezartzea bultzatuko da eta emandako laguntzen zenbatekoa hainbat emaitza lortu izanari lotuko zaio, hobekuntza sustatzeko politika gisa.
- **44. ekintza.** Eraikinen Ikuskapen Teknikoa eraikitako parkearen eraikuntza-kalitatea kudeatzeko eta sustatzeko tresna bihurtzea, baita diru-laguntzen eta laguntzen programa dinamizatzeko eta bultzatzeko tresna ere.
- **45. ekintza.** Agente birgaitzailearen figura garatzea.
- **46. ekintza.** Bizitegi-sektorearekin erlazionatuta eta sakabanatuta dauden laguntza-programa guztiak bateratzeko ahalegina egitea, baliabide ekonomikoak erabiltzerakoan eta herritarrei arreta eskaintzerakoan eraginkortasuna hobetzeko.
- **47. ekintza.** Eraikinen birgaitze globalari lehentasuna ematea, dagokien gastuari aurre egin ezin dioten bizilagunentzat laguntza osagarriak ezarriz.
- **48. ekintza.** Mantentze-kultura sustatzeko ekintzak gauzatzea. Etxebizitzaren eta eraikinen erabileraren ohitura onei buruzko komunikazio espezifikoak garatzea.

## 8. ildo. Eraikitako etxebizitza-parkearen irisgarritasun fisikoa hobetzea

- **49. ekintza.** Etxebizitza Sailaren irisgarritasun-programa berrikustea eta indartzea, Udalekin hertsiki lankidetzan jardunda.
- **50. ekintza.** Irisgarritasuna hobetzeko, jabari publikoa modu iraunkorrean okupatzen den kasuetan, betiere jabari publikoaren besterenezin-baldintza eta esku-hartzearen interesa kontuan hartuta, eragiketa horiekin sortzen den azalera berria eraikigarritasunaren hazkundetzat ez hartzea, eta erregistroari dagokionez ez lotzea ez etxebizitzekin ezta komunitateen elementu komunekin ere. Etxebizitzaz baliatzeko modua honako hau izan daiteke: okupatutako lurzorua jabari publikora itzultzea bermatuko duen administrazio-lagapen bidez, eraikinetatik eta kargetatik aske egonik higiezina ordeztzen den kasuan.
- **51. ekintza.** Irisgarritasunari buruzko araudia berrikustea, hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola eraikinaren “adina” edo babes-maila.

## 9. ildo. Euskal Administrazioak iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatuko ditu etxebizitza babestuak eraikitzeko proiektuetan.

- **52. ekintza.** Etxebizitza-parkean energia-eraginkortasunaren irizpideak indartzea, proiektugileak eta eraikitzaileak beren eskaintzetan horrelako elementuak erabiltzera bultzatuz, eta Etxebizitza Sailaren mendeko Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiari jardun mota horiek kontrolatzea eskatuz. Energia-eraginkortasunari eta iraunkortasunari lotutako kalitate perfilak garatzea.
- **53. ekintza.** Eraikuntzaren iraunkortasun-egiaztagiria garatu eta ezartzea.
- **54. ekintza.** Energia berriztagarrien ezarpena sendotzea eraikinetan nahiz auzoetan (District Heating), CO<sup>2</sup>-ren emisioak murrizteko ahalegina eginez.
- **55. ekintza.** Sindikatuekin elkarlanean aritzea lan-segurtasuna handitzeko etxebizitza babestuaren eraikuntzan.
- **56. ekintza.** Etxebizitza berriak eraikitzeko garaian kalitatea hobetzearren, berrikuntza indartzea, osagaietan eta erabileretan eraginkortasuna eta efizientzia areagotze aldera.
- **57. ekintza.** Berrikuntza bultzatzea etxebizitza pentsatzeko garaian eta etxebizitzaren diseinuan, betiere ikuspegi sozialetik eta familiaren ikuspegitik begiratuta, eguneroko oinarrizko premiak garatzeko espaziotzat har dadin.



- **58. ekintza.** EAEko Eraikuntzaren Klusterra garatzeko prozesuan aitzindari izatea s8ktoreko agenteekin batera, eraikuntza-sistemak gehiago garatu eta hobetzeko, teknika eta produktu berriak ikertzeko eta langileak espezializatzeko.

## **10. ildo. Infraetxebizitzaren, finkamenduen eta gainokupazioaren fenomenoak desagerraraztea**

- **59. ekintza.** Esku-hartzeko programa espezifikoak diseinatzea, Udalekin eta hirugarren sektoreko kolektiboekin lankidetzan, infraetxebizitzaren, finkamenduen eta gainokupazioaren fenomenoak desagerrarazteko; horretarako, jardun sozialak dituzten udalei laguntzeko ekintzak ezarriko dira, behar izanez gero.

## **4. ERRONKA**

### **ERAKUNDE ARLOKO ERANTZUKIDETASUNA HOBETZEA ETA LANKIDETZA PUBLIKO/PRIBATUA SUSTATZEA**

Euskadiko administrazioen premiak oso desberdinak direla ikusteko, nahikoa da egiaztatzea gure 251 udalerritako % 64k 3.000 biztanletik beherako biztanleria duela (zifra hau %97ra heltzen da Arabako udalerriei dagokienean) , eta biztanleriaren % 87a gainerako % 36 udalerrietan dago. Udalerri horietako bakoitzaren arazo sozialak, kulturalak edo ekonomikoak biztanleria-arloko zirkunstantzien, zirkunstantzia sozialen eta ekonomikoen arabera izango dira, eta askotan zailtasunak izango dituzte beren egoera espezifikoarekin bat etorriko diren neurriak hartzeko.

Ituneko kideen arteko lankidetzako eta kudeaketako egitura berriak aurreikusten dira, helburu komun jarraipen konpartitua eginez; informazioa ez da ondasun pribatiboa izango, helburu horiek lortzeko bitarteko bat baizik.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren arriskuak eta aukerak konpartitzeko nahitaezko formula da finantza-krisiaren eta aurrekontu-murriztapenaren testuinguruan, eta testuinguru horretan eraginkortasunak eta efizientziak aurreko aldietan baino garrantzi handiagoa hartzen dute.

**11. ildoak. Euskal Administrazioak Udalek etxebizitza-politiken alorrean duten zeregina bultzatuko du; horretarako, etxebizitza eta alojamendu babestuak sortzera bideratutako jardunen garapena sustatuko du.**

- **60. ekintza.** Udalekiko hitzarmenak eta akordioak sustatzea lurzorua mobilizatzeko.
- **61. ekintza.** Sail honek egindako Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak Tokiko Planen ondorio nagusiak, udalerrian dauden eskaera eta premia errealak atzemateari buruzkoak, bilduko dituzte.
- **62. ekintza.** Alokairua faboratuko duten ekimenak sustatzea eta horiekin elkarlanean aritzea.
- **63. ekintza.** Bi Administrazioen jardunak lotuta egon daitezzen bultzatzea, elkarren eskueran jarriz birkokatzeetarako etxebizitzaren parkea, industria-lekualdaketatetarako lurzorua eta abar.

**12. ildoak. Bi administrazioen arteko lankidetzaren indartzea, hiri-birgaikuntzaren eta -berrikuntzaren alorrean**

- **64. ekintza.** Udalekin eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateekin elkarlanean aritzea udal-mapa bat egiteko, Eraikinen Azterketa Teknikoen baterako plangintza egiteko oinarri gisa erabiliko dena. Mapa hori Sailak kudeatu, jaso eta erregistratuko du, eta hiru agenteek izango dute ikuskatzeko eta kontrolatzeko erantzukizuna.
- **65. ekintza.** Eusko Jaurlaritzaren eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen arteko harremana, koordinazioa eta lankidetzaren egokiak izateko behar diren bideak eta mekanismoak formalizatzea; horretarako, bultzatuko da bide eta mekanismo horiek sortzea horrelakorik ez duten udalerrietan edo horien jardun-arloa hedatzea biztanle gehiagorengana iritsi ahal izateko.
- **66. ekintza.** Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza ekonomikoaren kudeaketa eta horiek emateko aukera pixkanaka-pixkanaka Udalen eta Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen esku uztea aztertzea, izapideak azkartzeko eta bikoiztasunik ez izateko.
- **67. ekintza.** Kudeaketa konpartituko sistemak garatzea berritzeko eta eraberritzeko jardun konplexuen kasuan.
- **68. ekintza.** Birgaitzeko obrek irauten duten bitartean bide publikoa okupatzeagatik tasak eta zergak Udalek beherantz berrikusteko aukera aztertzea, sustapen-neurri gisa.

- **68. ekintza.** Birgaitzeko obrek irauten duten bitartean bide publikoa okupatzeagatik tasak eta zergak Udalek beherantz berrikusteko aukera aztertzea, sustapen-neurri gisa.
- **69. ekintza.** Udalekin batera irizpide estandarizatuak landu lokalak etxebizitza bihurtzeko baldintza beharrezkoak zein diren erregulatzeko ordenantza tipo baten diseinurako orientabide gisa erabil daitezten.

### **13. ildo. Euskal Administrazioak etxebizitzaren zerbitzu publikoen kudeaketa hobetuko du Tokiko Administrazioekin**

- **70. ekintza.** Udalen eta Sailaren artean informazio-elkartrukea eta elkarrekiko lankidetzaren sustatzea, elkarrekikotasun-printzipioetan oinarrituta, etxebizitza-arloko zerbitzu gero eta hobeak eskaintzearren.
- **71. ekintza.** Administrazio elektronikoaren teknologia eta tresna berrien garapena babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroa (Etxebide) modu partekatuan kudeatzeko eta etxebizitza babestuen (berriak edo bigarren eskukoa) esleipenen izapidetzea, instrukzioa eta kudeaketa arintzeko.
- **72. ekintza.** Elkarrekin lan egitea babes publikoko etxebizitzak sustatzera, bultzatzera eta erostera, etxebizitzak alokatzera eta birgaitzera, eta alokairu pribatuaren eremuko bitartekotza publikora bideratutako laguntzak eta programak hedatzen.
- **73. ekintza.** Sail honen eta udalerriko gizarte-zerbitzuen arteko komunikazioa hobea izan dadin sustatzea, gizarte-arloko laguntzak hobeto kontrolatzeko.

### **14. ildo. Administrazio Autonomikoaren eta Lurraldeko Administrazioen arteko lankidetzaren hobetzea.**

- **74. ekintza.** Aldundiekin lankidetzan, alokairuaren aldeko zerga neurriak aztertzea, sarbidea erraztuko duen elementu gisa, eta eurekin kolaborazioa bultzatu alokatutako parkea kontrolatzeko.
- **75. ekintza.** Birgaitzearen zerga-tratamendua hobetzea energia-eraginkortasunarekiko, uren tratamenduarekiko eta irisgarritasunarekiko estimulu berriekin planta berriko eraikuntzaren aurrean berrikuntza bultzatzeko.
- **76. ekintza.** Foru Aldundiekiko lankidetzaren sustatzea babestu daitezkeen birgaitze-aurerentzaren definizioari eta hedapenari dagokionez, etxebizitzak birgaitzea eta partikularrei nahiz jabekideen komunitateei zuzendutako laguntzak indartzearren, bereziki, igogailuak edo etxebizitzaren konfort-maila handitzeko egiturazko elementu eta instalazioak jartzeko direnak.

- **77. ekintza.** Elkarrekin bultzatzea Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen sorkuntza edo sozietate horien lan-eremua agente hori ez duten udalerrri edo eskualdeetara hedada dadin.
- **78. ekintza.** Sailaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, eta laguntzea komunean jartzeko gizarte-politiketara bideratutako parke publikoa solidaritate-funts baten pean.

## 15. ildo. Euskal Administrazioak lankidetzaren publiko/pribatuaren formula berriak indartu eta ezarriko ditu

- **79. ekintza.** Lankidetzaren publiko/pribatuaren mekanismoak ezartzea alokairuko eraikinak eraikitzeko, hala nola herri-jabariko emakidak Alokairuko Zuzkidura Apartamentuen (AZA) kasurako, parke publiko iraunkorra eratzea ahalbidetzen dutenak.
- **80. ekintza.** Alokairu publikoko parkea kudeatzeko modu berriak ezartzea sektore pribatuarekin kontzertazioan.
- **81. ekintza.** Akordioak sustatzea agente pribatuekin eskuragarri dituzten lurzorua eta etxebizitzak mobilizatzeko; horretarako, hitzarmenak garatuko dituzte, etxebizitzaren sustapena eta etxebizitzaren horiek alokairu babestuaren merkatuan sar dadin laguntzeko.
- **82. ekintza.** Agente pribatuekiko lankidetzaren ildoak indartzea, salmenta-erregimeneko etxebizitzak sustatzeko.
- **83. ekintza.** Eusko Jaurlaritzak, finantza-erakundeekin batera, finantza-arloko formula eta tresna egokienak bultzatu eta aztertuko ditu Itun honetan adosten diren jardunak garatzeko; horretarako, formalizatutako finantza-arloko Hitzarmenean dagokion "addenda" sinatuko da.
- **84. ekintza.** Unibertsitatearekiko eta arkitektoen eta aparejadoreen elkargo profesionalekiko lankidetzaren indartzea; horretarako, aztertuko, ikertuko eta estatistikak egiteko hitzarmenak ezarriko dira.
- **85. ekintza.** Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea higiezin bitartekaritzarako elkarte, korporazio eta elkargoekin eta erregistratzaileekin, kudeaketa arintzeko.
- **86. ekintza.** Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea finen administratzaileekin, auzokideen erkidegoetan birgaitze-politiken eta haien aplikazioaren berri emateko.
- **87. ekintza.** Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea Jabeen Elkarteekin eraikuntzaren birgaitzeari dagokionean jabe komunitateetan erabaki-hartzea bizkortu eta errazteko, SUR-ei lagunduaz Jabe komunitateen eta partikularren zuzeneko kudeaketan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko .....aren .....(a).